

Andoni Uzkeda Mateo

X-1998

Txantrean (Iruñean) jaio zen 1962.go Otsailak 2 zituelarik.

Jatorriz Mendabiakoa denez (Lizarraldekoa, beraz) euskaldun ikasia (ez baita berria) daukazue. A.E.K.-n euskaldundu eta gero bortz urte eman zuen irakasle.

«Danok Bat» eta «Iruña Taldea» dantzari taldeetan txistulari ihardun du. Halaber «Harkaitz» txistulari taldean ere esku hartu du (zilegi bekio idazlanean eginiko aipamena).

Ondotik lantegi hitsean lan hitsa egiten du langile hits bilakaturik. 1990. urteaz geroztik Maribel Zarrantz Elizalderekin ezkonduta Errotxapean bizi da.

«Mateoren testamentua» duzue lehendabiziko aldiz lehiaketara bere burua aurkezteko parada eman dion idazlana. Parada bikaina 1998.go lehiaketan lehen saria erdietsi zuelako «Pedro Atarrabiakoa» txapelketaren euskal sailean.

MATEOREN TESTAMENTUA



Hamarrak irian Mateo zenduaren etxeko egongelan.

Mari hilkutxaren aitzinean dago. Negar-zotinka. Ez dio ja ere. Mukizapiari eten gabe ekiten dio sudurra xukatzeko. Haren buruak dar-dar urduria egiten du. Zerbait ukatzen ari bailitzanedo. Harenek malkoak baino baserrekak dirudite. Hala ere ez dio ja ere. Halaxe ibili zen amatxi hil zitzaionean ere, astebetez, gau eta egun, negar egiten fitsik erran gabe. Batzuetan halako amorrazio-etsipen indarra eginez begiak hertsi, mukizapia bularrari kontra paratu, behatz erpuru eta erakusleaz begiak idortu eta nolabaiteko auhena dario. Ezker eskuan Mateok igorritako eskutitza dauka. Busti-bustia. Malkoek ximurtuta. Marik behin eta berriz irakurtzen du. Irakurtzen eta ulertzen ere saiatzen da baina alferrik. Ez dio funtsik antzematen Mateo adiskide minak eginiko ekintza latzari. Bere artean behin eta berriz errepikatzen ditu Mateoren hondar eleak *eta hori guztia dela eta buruaz beste egitea erabaki dinat*. Ez du konprenitzen. Ezta konprenitu nahi ere. Hilkutxari usu egiten dio so. Goiko estalkia ireki eta gorpua besarkatzeko gogoei eusteko zinezko ahaleginak egin behar ditu. Hurbiltzen hasten denetan barrendik isurtzen den haratustel kiratsak gibelarazten du. Bat-batean barneko sentimenak agerian utziz hilkutxa besarkatu eta lagunaren izena agudo-agudo xuxurlatzen hasi da.

Ondoan eserita, hankak zabal-zabalik, ukondoak izterretan lagunduta eta eskuek mazelei eusten zietelarik Josebak den-dena ikusi du. Azkenean Mariri eskutik heldu, besarkada eman eta aulkiraino lagun egin dio. Josebaren aulkiaren azpian dena busti-bustita dago. Izugarria da Mateo zenaren anaiaren malkoak isurtzeko ahalmena. Putzu eta guzti egin du. Ondotik iragaitean Mariren oinetakoek halako oinatz lokaztuak utzi dituzte. Joseba Mari kontsolatzera bermatu da. Ez daki oso ongi baina. Berak ere badu Mateok igorritako eskutitza. Marirenarekin erkatuz ohartu dira gutun bera dela nahiz eta bata toka eta bertzea noka egon. Horixe da aldatuta dagoen bakarra. Marik isilune hitsa hautsi nahian azkenean honelaxe erran dio Josebari:

–Ziur aski ordenagailuaz eginen zian eta gero aditzak aldatuko zitian hiketan paratzeko.

–Bai, ziur aski. –Ihardetsi dio Josebak negar egitetik utzi gabe.

Hilkutxaz haraindian Jon dago. Hilkutxa eta gelako ezker aldeko paretaren artean ibiltzen. Batzuetan leihora begira geratzen da eta karrikan jendea ekaitzaren pean korrika eta presaka ikusten du. Burua leihoko kristalari kontra imini eta negarrari eman dio. Kristala lurruneztatzen hasi da. Jonek burua leihotik apur bat urrundu eta bere arnasak sorturiko lurrunean zerbait marrazten dihardu ikusmenak bat ere laguntzen ez diolarik begirada zeharo goibel eta galdua baitauka. Hondar keinu batez dena zirriborratu eta ezabatu egin du. Jon berantetsita dago. Etortzeko dagoen Txabiren iristeari luzetsita. Jon hagitz puntuala da eta ez du sobera gogoko Txabik beti berantegi ailegatzeko duen joera.

–Baina, etorriko al da gizon potroso berankor hau?

–Lasai Jon, badakik nolakoa den gure Txabi? –Marik Jon lasaitu nahi izan du.

–Mari, nik beti barkatu izan zionat Txabiri hain berankorra izatea baina Mateoren testamentua irakurri behar dugun egunean garaiz iristea hain zaila al da? Ez dinagu Mateo berriz ikusiko, hark nahi bazuen gu hona bil gintezen haren azken agurra entzutera guk nahi hori bete beharko geniken. Areago Mateok hamarretan nahi

bazuen hamarretan egin beharko geniken eta jadanik hamar eta erdiak ditun. Aski din potroso horrek.

Inork ez dio erantzun. Oraingo hau da isiltasuna munduko zaratarik haundiena baino aisa gorrotagarriagoa dela erakuts dezaketen egoera horietarikoa. Adiskide orori laket litzaioke zerbait erraten jakitea. Edozer gauza, munduko ergelkeriarik haundiena. Alferrik ordea. Jota daude eta duten gogo bakarra da Txabi irits dadin testamentua irakurtzeari ekiteko. Egitan lur jota daude eta guztien buruan asmo bera dago, testamentua irakurri, berehala etxeratu eta nork bere burua ahal bezala kontsolatu. Adiskide talde honek beti berdin jokatu du, gauza eta esperientzia onak izateko elkartu eta jendea bertze edozein egoerak baino aunitzez gehiago adiskidetzen duten une hitsak bakardadean nozitu. Jonek berebil batek anaia hil zionean Baztango landa etxe bat alokatu zuen eta hiru egun eman zuen bertatik zirkinik egin gabe. Txabiri aita hil zitzaionean etxean astebete batez bakar-bakarrik egotea otu zitzaion. Are egon ere! Josebak joera bera zuen. Salbuespen bakarra Mari zen. Marik den-dena kontatzen zion Mateori. Marik bazekien arazoren bat bazuen edozein orenetan izanik ere lasai joan zekiokeela Mateori aitortzera. Apika hau dela eta Mateoren heriotza bertze guztiek baino sentitzenago du. Atariko txirrina aditu da. Joseba ihardestera jaiki da.

–Txabi da. Sarri iganen da.

–Bazen tenorea! (Jonek, luzetsita).

Pisuko ateko txirrina aditu da, atea Jonek ireki du zimizta baino laisterrago.

–Aizak potroso hori! hire zain gaudek. Ez haiz gauza izan tenorez iristeko ezta gaur bezalako egun batean. Gibelaundi halakoa!

–Txirrindula lapurtu zidatek eta oinez etorri behar izan diat, barka otoi.

Joseba bien artean sartu da eta giroa hozten saiatu da:

–Beno, irakur dezagun Mateoren testamentua denok baikaude. Dakizuenez gutun bana igorri zigun ene anaia zenak hona

haren testamentua aditzera bil gintezen. Neuri eman zidan hor ikusten duzuen gutunazal horren barnean dagoena irakurtzeko ardura. Arduraren gogorra!, zinez. Ez naiz ni mintzaldiak egiteko gauza, sekula ez naiz izan eta orain ez naiz izaten hasiko baina kanpotik soma ditekeenez testamentua luzea da eta banago dena irakurtzeari negar egin gabe ekinen ote diodan. Ezin izatera mesedez bertze batek har beza txanda. Negar egitetik gelditzen ez naizeno bederen!

–Ados! (denek batera onetsi dute).

–Beraz, zabal dezagun gutunazala eta dakusagun zein den gure Mateoren azken nahia.

Josebak gutunazala hartu eta ireki egin du. Barnean lau paper multzo daude. Laurak bereiz eta grapaturik eta hauetaz gain orri bat ONGI IRAKURTZEKO AINTZATETSI BEHARREKO ADIERAZPENAK izenburua duena. Bertze lau multzoetako bakoitzak, aldiz, badarama goiko aldean lagun baten izena, jakina! gela hartara bildu direnen izen bana. Joseba orri soltearekin hasi da.

ONGI IRAKURTZEKO AINTZATETSI BEHARREKO ADIERAZPENAK.

Honez gero denok bilduak izanen zarete ene hilkutxaren aitzinean. Badakit, ederki jakin ere, zeinen gogorra den hau bezalako egoeretan alde egiteko gogoari eustea baina erran behar dizuedanak garrantzi haundia dauka eta zuek laurok, bizitzan izan ditudan adiskiderik minenok, une hits honetan elkarrekin egoteari ezinbertzekotzat deritzot. Gure taldea ez baita sekula izan elkarri mirespenak azaltzeko modukoa. Behin ere ez dizuet erran zenbateraino behar eta maite zaituztedan. Baina utz ditzagun istorio latzok eta ekin diezaiogun testamentuari.

Ondoko txostenetan bakoitzari dagokiona zehaztuko dizuet baina oraingo orrialde honetan, izenburuak dioenez, aitzatetsi beharreko eredua damaizuet aditzera.

Lehenik eta behin gustatuko litzaidake Josebak irakur dezan ene testamentua. Josebak urteak eta urteak eman ditu antzerkigintzan eta haren ahotsaren sakontasunari arras egoki deritzot une goibelotan. Alegia, Landart, Lartzabal, Mirande eta hari hainbertze laket zaizkion Shakespeare-ren testuak irakurriz trebezia haundia bereganatu du une «solemneetan» mintzatzeko...

... Josebak ezin eutsi dio negarrari eta komunera sartu da. Atea barrendik hertsi maratilaz eta negar-zotin erdiragarrian dihardu. Txabik eta Jonek elkarri so egiten diote Marik Mateoren anaiarengana jotzen dueno.

–Joseba, Joseba, ongi hago? atera hadi mesedez, elkarren artean denok hobe moldatuko gaituk eta.

–Sarri aterako naun, ongi nagon. Bakarrik begitartea ikuzi nahi ninan, malkoak xukatu alegia.

Atera denean, aldiz, lehen baino bustiago dauzka begiak. Negarretan ari da, mukizapia sakeletik atera eta begiak ditu idortu.

–Tira ba segi dezagun irakurketarekin.

...mintzatzeko (Josebak aidean lagatako azken hitza errepikatu du hariari berriz eusteko) nik askotan ikusi dut bakarrizketak prestatzen, behin ispiluaren aurrean baloi batekin txu bi or no txu bi (barka nazazue baina ene ingelesera ez da oso «batua»). Horregatik, nik uste, prestatuena dago testamentua irakurtzeko.

Bigarrenik honatx txostenei eman behar zaien ordena: lehena Txabirena (ene adiskiderik aspaldikoena baita), bigarrena Jonena (badakit berea entzun arte ez duela kasurik eginen, beti berantesten baitabil, beraz entzunaraz diezaiogun Joni berea gainerakoak ere entzuten ahal ditzan). Hirugarrena taldeko neska bakarra. Mari. Hainbertze gizonen artean beti aurreneko txanda izatera ohituta dagoenak iguriki dezan bere txanda inolako matxismorik gabe. Laugarrena ene anaiarena. Joseba arront barneratu zen gure taldera nahiz eta gu baino bortz urtez zaharrago izan. Taldeko agurea. Berak irakurri behar duenez azken txanda bere.

Hirugarrenik. Otoi, ahalaz saia zaitezte irakurketa ez gelditzen. Badakit oso luzea dela baina beharbada ez baduzue dena jarraian entzuten ez zarete gauza izanen nire paranoiak berriz aditzera biltzeko. Hozkailuan pastiza bat utzi dut jateko gogoa ase dezazuen. Bart prestatu nuen. Ez zaitezte beldur, nahiz eta HIESak jota egon eskuen bidez ez diezazueket neure eritasuna kutsa. Jan ezazue ene ohorean. Errezeta izeba Maixiri kopiatu nion. On dagizuela.

Laugarrenik testamentuaren bidez bakoitzari opari bana eman dizuet, mesedez ez haserretu ondokoaren opariari hobe baderitzozue. Opariok zeuen nahien araberakoak dira eginak, edo nik behintzat hala uste. Barka nazazue eta kita itzazue ene zorrak.

Bukatzeko eta irakurketara pasa aitzin zehaztu beharreko zerbait. Orain dela urte eta erdi bat odol ateratze bat egin zidaten lantegian, urtero-urtero mutuak egiten dizkigun horietarikoa hain zuzen ere. Nik den-dena ongi neukan ondoko txostenean azaldu zidatenez. Gero lankideekin solasean Pello Urritzak, bai Pello Urritzak, iaz hil zen irurtzundarrak, erran zidan HIESak jota zegoela eta iruditu zitzaiola erizainak harengandik niregana ez zuela xiringa aldatu. Kontuz ibiltzeko beraz. Honek zinez txundituta utzi ninduen. Ez nekien sobera HIESari buruz baina bai huraxe zela kutsatzeko erarik arruntena, xiringen bidezkoa. Hau dela eta orain dela bi hilabete bertze odol ateratze bat egitea xedatu nuen. Emaitzek ez zuten zalantza izpirik isladatzen: HIESak jota nengoen. Etxera bidali dizuedan gutunetan ez niotsuezen nola kutsatu nintzen. Orain badakizue. Badakit orain izugarri aurreratzen ari direla sendagileak HIES eritasuna sendatzeko baina anartean ez dut narraztaka bizi gura, ez dut neure gorputza gorpu bizidun bilaka dadin. Ez dut jendearen izua somatu nahi harengana hulbiltzen naizenean edozertarako. Eta ez dut inolaz ere kristauen urrikaltasun hipokrita jasan nahi ene arazoa ulertzen dutela eta BERE egiten dutela diostatezenean. Egia baita eta halaxe aitortu behar dugu. Zer kontto!!! Jendea HIESdunon beldur da. Uste dute (uste okerra, naski) begiratuz kutsatuko ditugula. Ez dituzte beren semealabak guregana hurbiltzera uzten. Afera nik bezain ongi ezagutzen duzue. Ez zintuzket dagoeneko aspertzen hasi nahi. Barkatu baina azalpenok Ama Lurrarengana itzuliko nauen pozoina edan ondo-

tik idazten dihardut. Ez dakit noiz arte segitzen ahalko dudan idazten. Zuen lau txostenak pozoina hartu baino lehen idatzi ditut beraz osorik daude, ez kezkatu, afera da orain ez dudala egin dudanaz hausnartu nahi eta bizi-asti hau zer edo zertan eman behar dudala egin dudana damu ez dakidan eta ok egiten has ez nadin. HIL EGIN NAHI DUT! Bertzeren eritasunak konpreni ditzaket, «bertzeren minak ez du inor hiltzen» dio esaera zaharrak eta egia da baina norberarenak bai eta nik ez dut hilik bizi nahi. Barkatu baina ene azken nahia horixe da. Beti aitortu izan dut neronek erabakiko nuela noiz hilko nintzen, tenorea, adixkide maiteok, iritsi zait. Ez dut gehiago idatziko jagoitik pozoiaren eragina nabaritzen hasia bainaiz, testamentua gutunazalera sartuko dut eta hilkutxa hertsiko dut. Badakit «fantasmagorikoegia» dela baina gure aitatxi zaharrak bere buruaz beste honelaxe egin zuen «nazionalek» hil nahi zutela jakin zuenean. Emazteari, gure amatxiri, alegia, eskutitza idatzi pozoina edan eta hilkutxara sartu.

Akabera da, ezin dut gehiago, barka nazazue eta ongi ibili beti elkarrekin. Osasüna zientako!

Joseba berriz komunera joan da. Ezin euts diezaioke negarrari. Komunetik oihu eta auhen erdiragarriak adi daitezke. Mari, beti Mari, ateraino hurbildu da:

–Joseba, lasaitu mesedez. Arront egoera latza dela bazekiagu, baina saia hadi gainditzen, honek ez dik konponbiderik. Irakur ditzagun Mateoren hondar hitzak eta gorde ditzagun betiko geure bihotzean. Orain elkarren premia eta beharra ditiagu sekula baino gehiago.

–Mari, zoragarria haiz, beti badakin zein hitz erabili jendea zulotik ateratzeko. Arrazoia dun, segi dezagun irakurketarekin Mateok nahiko lukeen bezala.

Josebak gutunazaletik TXABI UZKUDUN URKIXO jartzen duen orri multzoa hartu du, gainerakoak aulkiaren gainean utzi ditu. Lehendabiziko orrialdean izen-deiturak ez ezik marrazki bat ageri da. Musikari bat, kitarra jole bat hain zuzen ere. Denek miresten dute Txabiren kitarra jotzeko trebezia. Kitarra jolearen aurpegia Txabirena da. Marrazkiaren azpian honelaxe jartzen du:

Marrazki hau Txelis-ek egin du. Badakizue, Eibar tabernan egoten den marrazkilari ospetsuak. Txabiren argazki bat eman nion marrazkia egin ziezaidan. Zuen gustokoa izatea nahi nuke.

Txabi marrazkia ikustera hurbildu da. Gogoko du, doike.

–Txelis Eibartar horrek zinez ongi marrazten du, alajaina!

–Hire antza ikaragarria dik. Gainera ez dik nolanahiko kitarra jarri, ostras: *takamine* bat!

–Tira ba, has gaitezen Txabirendakoa irakurtzen. Txabi, naski, gero nahi baduk marrazki hau heure gelan zintzilika dezakek. Txabiri eskainia irakurtzen hasiko naiz.

TXABI UZKUDUN URKIXO.

Txabi Uzkudun Urkixo Urionaguena Uria Uranga Urbeltz Uitzi Urritzalki. Heu haiz ene adiskiderik aspaldikoena. Ikus dezakeanez hik eskoletan behin eta berriz errepikatzen hituen deiturak gogoratzen zaizkidak. A zer astuna hintzen: *nire deitura guztiak U-z hasten dituk, den-denak.* Bitxikeria galanta bai, baina, a zer astuna hintzen!, beti lelo bera errepikatzen. Gero adiskidetu ginenean gelakideek-eta galdetzen zidatean: *aizak Mateo, zenbat aldiz errepikatzen dizkik Txabik bere deiturak.* Eta nik ezetz, ez hintzela hain astuna eta abar. Garai ederrak iragan ditiagu elkarrekin. Nik uste bizitza honetan barrerik haundienak hiri esker egin ditudala. Sekula ez diat erran ez baihindudan aspertu nahi baina oraingo hau ene azken eskuizkribua denez izorratu beharko duk eta pairatu.

Gogoratzen zaik nola adiskidetu ginen? Niri bai. Ikastolako besta nagusia zuan. Jokorik asko imini zigutean: txirrista haundi bat barrendik ur xirripa moduko zerbaitek ureztatua, zanbala jiragarri bat zeinak goiti eta beheiti ez ezik ezker-eskuin higidura ere baitzuen, mini-golf moduko zerbait zuloak hutsik egon beharrean gozokiz beterik zeuzkana... joko andana galanta prestatu zigutean, alajaina. Baina hainbertze joko asmatu berriren ondoan bazegoan bat betidanik erabili izan genuena halako jaietan: « itsulapiko zintzilikatuak». Afera, jaikina denez, itsulapikoak (begiak estalita)

haustean zetzaan. Eta han hintzen heu heure makilak lagundurik ikastolako zuzendariaren azalpenak aditzen eta heureganatzen (ondotxo hekizkien!). Zuzendariak mundu guztiari jokoa azaldu eta hiregana hurbildu duk begiak estaltzeko asmotan. Halaxe eginez gero derrigorrezko galdera egin dik: Uzkudun, ezer ikusten al duk? Eta hik ezetz, dena beltz-beltza dagoela erran eta prest hagoela itsulapikoa hausteko. Zuzendaria hi biraraz ten hasi duk, bi, hiru, lau, bortz, sei bira eragin dizkik. Azkenean askatu egin hau, hi zorabiatuta bezala-edo aldoka-maldoka hasi haiz, keinu ia ohartezinean begietako zapia pitin bat askatu eta begirada laisterra bota diok zuzendariari. Nitaz bestalde inor ez duk ohartu horretaz. Makilarekin gora eta behera, ezkerrera eta eskuinera hasi haiz, haztamuka bezala, bat-batean hi betidanik zuzenetsi hauen zuzendariarengana zuzendu haiz gezurrezko zorabioak zuzendua-edo eta jendearen oihuei jaramonik egin gabe (gogoratzen al zaik nola oihukatzen zian Maite Goldaratzek: Txabi eskuinera, es-kui-ne-ra, jakin balu bahekusala...) zuzendariari heure makilaz sekulako kolpea zuzendu diok (hau duk hau, gauzak zuzen-zuzen kontatzea!). Ez zekiat hire asmoa horixe huen baina barrabiletan asmatu huen, bete-betean. *Hori dek hori, kolpe latza* erran zuen Ramon Baleztena uitziarrak barreari nekez eutsirik. Gero makila eskuin eskuan hartuta lurrean lagundu duk eta ezker eskua belarrira eraman eta kolpearen hotsa esperatuko bahu bezalako keinua egin duk. Keinua berriz errepikatu, oraingo honetan nabariago, baina zaratarik entzun ez baita (zuzendariak bai, adituko zian!) makila bi eskuetan hartu eta berriz zuzendariarengana abiatu haiz, beronek hire makilaren norabidea ikusirik eta zirkinik ezin eginik egonik (halaxe diot nik!) bere burua makurtu dik. Eskerrak. Makila buruaren gainetik pasatu duk agudo baino agudoago eta zuzendariak haren lorratzaren haizea nabarituko zian doike.

Egoerakideak Txabiri begira geratu dira. Egun hitsa bada ere aspaldiko egoerak gogorarazte honek barre eragin die. Txabiri halako kidetasunezko keinuak egin dizkiote. Txabirekin beti ongi pasatu dute eta eskertzekoa da unerik latzenetan jendea alaitzeko daukan joera. Josebak bere irakurketa lipar batez eten du, Txabiri begira dago. Beronek negarretan dihardu. Negar-zotinka. Ezin sinets dezake laguna hilik dagoenik.

–Ez da posible. Hobe hainbertze aldiz ergelarena egin baino aitortu izan banio nion mirespena. Zinez estimatzen nuen eta ez nion sekula erran.

–Txabi, badakik nik hagitz gaiki pasatu nuela Iñakik utzi ninduenean, ba orduan Mateorengana jo nuen eta berak badakik zer aholku eman zidan?

–Nola jakinen dinat ba!

–Hiregana joateko, jendea konsolatzeko izugarrizko abilezia heukala eta.

Mariren esaldi honek lasaitu beharrean txundituago utzi du. Josebak irakurketarekin segitzea xedatu du.

...gero zuzendariaren bulegora eraman haute eta han epaiketa gogorra egin ditek. Zuzendaria ziur zegoan nahita egin hiola eraso eta hik ezetz, ez huela ja ere ikusten, zapiak estalirik ezinezkoa zela ikustea. Eta orduan neu sartu nauk, beti zuzendariari begiratzetik utzi gabe zera erran diat edonork entzuteko era ozen eta garbian:

–Aizak Uzkudun, honatx goizean galdu dituan lentilak. Komunean zeudean, ok egin duanean eroriko zitzaizkian.

–Nola lentilak, zer lentilak? lentilarik erabiltzen al duk Txabi?

Hik ene laguntza paregabea ikusita berehalaxe jabetu hintzen egoeraz

–Bai zuzendari jauna, nola ikusiko nuen ba lentilarik gabe eta begiak zapiak estalirik? Berriz diotsut: kolpea txi-ri-paz suertatu da.

–Bego horretan, segi jostatzera.

Gero bulegotik ateratakoan izozki bat oparitu hidan eta *behin betiko adiskidetasuna* sinatu genian. Geroztik beti elkarrekin ibili gaituk, pasadizu ederrak ditiagu kontatzeko. Gogoratzen al zaik nola ikasi genuen...? badakik... kanpaia jotzen.

–Kontto! honelako gauzak ez dira nesken aitzinean aitortzekoak. Joseba ez ezak hori irakur.

Txabi gorri-gorri dago. Lagunak harrituta daude, hau da Txabi ahalketurik ikusi duten lehendabiziko aldia. Orain denek entzun nahi dute adiskiderik xelebreenaren xelebrekeria hau.

–Txabi, hago lasai, nik ere askotan egiten diat bakarlariaren bekatua. Neskok ez gaituk atzo goizekoak.

Mariren aitorpen jator honek zurbil eta lasaiago utzi du Txabi. Zurbil ez baita inoiz gauza izan neskekin sexu aferez solastatzeko eta lasaiago behin honelako barne sekretuak kontatuz gero jendea adiskideagotzen baita. Hondarrean Josebak aurrera egin du

Bazuan behin gure hirian zirko bat. Hik, Txabi, beti arras gogoko izan duk zirkoa. Elefanteak, lehoiak, tigreak, pailazoak eta abar. Orduan oso txikiak ginduan, txiki-txikiak. Bederatzi bat urte-edo. Jakina, zirkora nahi bagenuen gurasoekin joan behar. Halaxe egin genian. Horra gure lau gurasoak, hi eta seiok AFRIKAKO ZIRKOA ikusten. Tigreen txanda bukatu eta gero atsedenaldia burutu duk. Gu, nonzerberri hutsak, begiluzekeria ezin ekidinik, piztien kaiolak ikustera joan gaituk. Elefanteak ikusi ditiagu, gero lehoiak, lepaluzeak eta tximino bat. Tximinoa aulkiaren gainean zagok eserita, hankatarteari begira zagok, eskuin eskuaz bere barrabilak ferekatzen ditik ezker eskuaz zakilari eusten diolarik. Tximinoa gero eta urduriago zagok, gero eta mugitzenago ditik bi eskuak, eskuina aurrera eta atzera eta ezkerra gora eta behera. Lantzean behin guri begira geratzen duk bere lanetik gelditu gabe. Hi eta biok harrituta gaudek, ez zekiagu (ez genekian) zertan ari den. Ziplo tximinoak ezkerraren abiadura izugarri laistertu dik eta goiti begira geratu duk ezpainetan irria ageri zaiolarik. Burua zeharo atzeratu dik eta oihu tiki bat bota dik. Gero hasperen moduko zerbait. Ondoren guri begira geratu duk. Ez diagu (ez genian) deusik ere ulertu. Azkenean zakilatik ixuritako esne modukoa xukatu eta lurrean etzan egin duk. Halaxe ikasi genian nola jotzen den kanpaia. Beno ez duk zeharo egia, izan ere gero ikastolako lagunekin galdetuz, aztertuz, informazioa bilduz eta abar «ikasgaia» ikasi genian.

–Norengandik ikasi eta zirkoko tximinoarengandik.

Marik irri egin du

–Pentsa gero, egiten genuen bakoitzean zer lotsa!, amets erotikoak tximinoaren aurpegiarekin nahasten zitunan. Batzuek kanpaia jo erran beharrean idiarena jo erraten diten, guretzat aldiz tximinoarena jo. Zer lotsa!

–Aizue, oraindik Txabirentzat gehiago dago, segi dezagun eta gero tartekatuko ditugu pizza batzuk.

–Arrazoia duk, bertzenaz sobera luzatuko baita.

Josebak, berriz, kontaketari ekin dio.

Lehengo gertaera horrek gorrituko hinduen, ez da hala Txabi? Ikusi ez bahaut ere bazekiat baietz, orain niri gehien gustatu zitzaidan pasadizua kontatuko diat. Ikastolan bazegoan irakasle harroputz bat, Patxi Bengoetxea, gizon ederra nonbait. Begi urdin-urdinak, ile hori diztiratsua, soin gihartsua, esku finak eta begitarte ederra neska gehienen ustetan. Hura ikastolara sartu bezain laister bertze gizonik ez zegoan neska gehienentzat. Ez denentzat, ordea. Hire ahizpak ia aurreneko unetik beretik begitan hartu baitzuen. Hire ahizpa oso lodia zuan. Beno zuan, duk eta dukek ez baitu bere burua gehiegi zaintzen. Irakasle berria, Patxi alegia, gelara sartu eta horra neska guztien begiradak eta hasperenak (ez tximinoarenak bezalakoak baina ia-ia). Nekane, hire ahizpa, lehen eserlekuan jartzen zuan, irakaslearen ondo-ondoan. Nekane liluratuta zegoan irakasle berriaren gorputzarekin. Behin klasean ginelarik irakasleak galdera bat bota zian, nola zen? ... a bai...

–Zein da Kubako hiriburua?

Orduan Nekanek irakaslearen aurrean puntuak irabazi nahianedo laister baino laisterrago erantzun zian. Erantzun okerra ordea. Erantzuna bazekian, baina artegatasunak erantzun okerra botarazi zioan

–Banana, Bengoetxea jauna.

–Nola erran duzu, potolo horrek?

Honetxek suntsitu zian Nekane, berdin zitzaiokean erantzun okerra ematea, askotan gertatzen zuan eta denek barre egin ondotik erantuna zuzendu eta kitto. Baina orduko hura irain pertsona-

la zuan. POTOLO hitza gogorregia zuan. Nekane negarretan atera zuan gelatik. Ondoren Nekane beti maite izan duen bakarra, Ramon Baleztena alegia, jarraiki zitzaioan kanpora aurretik honako hau bota zuelarik:

–Hura beharbada potolo baina zu potroso harroputz astopitozikina.

eta danbada ikaragarria eginda alde egin zian. Gero, etxerakoan, hire asmoen jabe egin ninduan

–Aizak Mateo, kabroi horrek egindakoak mendekua merezi dik. Ez zekiat nola baina ordainduko dik arrebari errandako iraina.

–Ados nagok, Ramoni hire izenean eskerrak eman zizkioat.

–Ederki portatu duk uitziarra, ikaragarria duk.

–Nekanerekin beti maiteminduta ibili duk.

–Izozki bat oparituko zioat. Ausardia behar duk irakasleari aurre egiteko berak egin duen bezala. Beno... hona mendekua. Igande honetan mendira joan beharko diagu astaputzak biltzera.

–Hi, baina, ez al dira pozointsuak?

–Ez dituk jateko, ikusiko duk...

Halaxe egin genian, mendira joan eta ezin konta ahal astaputz bildu genian. Ondoren hire gelara sartu eta astaputzen barneko aldea hire aitaren lantegitik ekarritako poltsa batera hustu, airez puztu, korapiloa egin eta gorde egin diagu biharamunean erabiltzeko.

–Zertarako paratu duk poltsa berezi hori? Ez al duk garestiegia?

–Lasai, bihar den-dena azalduko diat. Fida hadi enekin.

Astelehena, goizeko bederatziak hamar guti, Geografia eta Historia irakaslearen zain gaudek. Gehienak pasabidean hi eta biok, aldiz, gelan. Irakaslearen aulkian lehengo poltsa paratu diagu. Geure eserlekuetara joan gaituk. Irakaslea, beti bezala, bederatziak bi minutu gutitan iritsi duk. Ikasleak gelararazi eta bera atzetik jarraiki zaie. Atea hertsi, zekarren liburua mahai gai-

nean utzi, jendeari agur egin, eguneko gaia zertan datzan azaltzen hasi deno aulkia gibeletu eta gainean eseri duk. PUUUFFFFFFFF! a zer kiratsa, munduko zakur guziek aldi berean puzker egin izan balute ez zuketean honek bezainbateko usainik erdietsiko, ez horixe! Ramon Baleztenaren erantzun laisterrak urduriagotu du irakaslea:

–Aizu, irakasle jauna, ez al duzu edukaziorik? Hemen energia nuklearraren kontra gaude. Ni banoa. Hobe da potoloa izatea kirasduna baino.

–Barka baina ez dakit zer gertatu den, nik zin dagizuet ez dudala puzkerrik bota.

–Ez dizugu sinesten. Gainera atzo banabarrak-edo janen zenituen afaltzeko. Ostras, zer fafakue. Ustelduta zaude, hor konpon, gu bagoaz.

Gelatik jalgi orduko hantxe diagu gure Ramon pankarta eta guzti. Pankartan zera jartzen du IPURDI NUKLEARRIK EZ. Hik noski Ramon jakinaren gainean jarri huen niri ezer erran gabe. Pasabideko erdal hotsa entzunik zuzendaria agertu duk afera zertan den jakitera. Gelara sartu eta

–Aizu, Patxi, baina zer arraio gertatu da hemen? Zer da kirats hau?

–Irakasle jaunak puzker galanta bota digu.

Nekanek, hau dioeno, mukizapi batez estaltzen dik bere sudurra. Pozik zagok hik mendekua bete dualako.

–Baina, zer diozu? (irakasleak, arront urduri) hemen zerbait paratu didate eta eseri naizenean hautsi egin da.

–Baina Patxi, hemen ez dago ja ere. Mesedez puzker egin baduzu aitortu eta kitto, denoi irristatzen zaigu noiz behinka. Normala da, ireki leihoak eta kiratsak alde egiten duenean sarrarazi ikasleak eta segi eskola ematen.

–Baina... baina...

–Kitto, segi dezagun geure betebeharrekin.

Ordu laurden bat pasata gelara sartu gaituk denok hik aitaren lantegitik ekarritako maskarila bana daramagularik. Hamarrak irian atera eta ongi adierazi didak dena

–Poltsa hori aitaren lantegitik ekarri diat, berak jakin gabe, naski. Poltsa berezia duk eta arront garestia. Poltsa hori hogeita hamazazpi gradutan, hots, gizakiek orok duten tenperaturan urtu eta desegin egiten duk. Horregatik ez ditek poltsarik aurkitu. Astaputzen hautsa poltsa lehertzean barreiatu duk baina ez ditek ikusi zolari so egin ez diotelako.

–Eta egin izan baliote?

–Orduan Ramonek prestatuka zeukaan konortea galdu duenarena egitea eta sendagile bat eskatzea. Baina ez duk beharrezkoa izan.

–Txabi, benetan, sekulako burua daukak holako gauzak egiteko.

–Hasieran berebilaren gurpilak zulatzea ere otu zitzaigun baina ez genuen kalte ekonomikorik sorrarazi nahi bakar-bakarrik ahalkea baizik.

–Ba, helburua arront ongi bete zenuten.

–Txabirena bukatzeko hagitz guti behar da, buka dezagun eta eska dezagun pizzaren bat jateko.

Zinez pasadizu galanta. Txabi, ziur aski berantegi iritsiko zen bilera honetara, beti legez. Bertze aldetik ikusita lehendabiziko «atal» honen luzeera honez gero batzuk bazkaltzeko orduari berantetsirik zaudekete doike. Beraz buka dezagun Txabiri dagokiona eskaintza bereizi batekin.

Txabi bazekiat, ontsa jakin ere, musika biziki gogoko duala. Bazekiat kitarra ere jotzen badakiala, ez hik miresten duan Bixente Martinez-ek bezain ondo baina ederki moldatzen haiz. Hori dela eta nituen sos batzuk erabiliz ene logelako apalategiaren gainean kutxa batean opari polit bat utzi diat. Hik beti azaldu duk Europa musika joz dohainik ezagutzea gustatuko zitzaiala. Goizean herri baten enparantzan jarri musika jotzen eta abesten eta gero

bilduriko sosaz herri hori ezagutu. Asmo ona duk baina horretarako musika tresna egokia behar duk. Txabi, hau ene azken agurra duk hustira ezak ongi nik utzitako oparia eta ezagut ezak Europa. Ongi bizi eta beti arte.

Txabi, laister baino laisterrago Mateoren gelara abiatu da, apalategia aztertu eta ez du ezer berezirik ikusi. Bat-batean goiko apalean kutxa haundi bat ikusi du. Aulki bat hartu haren gainera igan eta kutxa du hartu. Paper zuri batez estalita dago eta berau inguratzen eta estutzen korapilo gorri erraldoi bat du. Txabik kutxa lurrean utzi, korapiloa askatu, papera urratu eta kutxan *Takamine acoustic guitar* irakurri du. Txabi harrituta, liluratuta, hunkituta geratu da. Haren bekainek bekokia zimurtu eta kopetilearen kontra herstutu dute. Txabiren ahoan saxofoi oso bat sar liteke baina ez muturretik azpiko zulotik baino. Gogo biziz kutxa ireki du...

–Kontto, Takamine bat eta gainera hamabi sokaduna. Hau duk hau oparia. Mateo maitea, ez haut sekula ahantziko.

Txabik kitarra lurrean utzi, eskuak gerriaren atzeko aldetik bildu eta bertso bat bota du lagun zenduaren gorazarretan:

Bizitzan barna ezbehar franko
daukagu alafedea
Euskal Herrian anitz hil dira
lagun nahiz adiskideak
alaitasunik aski genuen
Mateo bizi zenean
hauxe da egia aitortzekoa
agurtzeko tenorean
Euskaldunon zerurik badago
han da Mateo gurea
han da Mateo gurea.

Denak isil-isilik geratu dira, hunkituta doike. Jon Txabiri begira geratu zaio, berak beti bertsoak maitaturik ere ez baitu sekula bertsorik bukatu. Potto edo huts egiten du beti. Horregatik beti miretsi izan du Txabiren erraztasuna bertsoak burutzeko, maiz aski haren bertsoak ez direla kalitate onekoak leporatu diolarik ere ezin uka dezake mirespena.

Josebak behin Txabiren bertsoak entzun ondotik irakurketarekin jarraitzeko prest dago. Hurrengo txanda Jonena da. Gutunazaletik JON LEZAUN LOGROÑO jartzen duen orri multzoa hartu du. Ozenki irakurri ere egin du, gelakide guztiek entzuteko moduan. Jon berantetsita dago bereari noiz ekinen zain. Pixagura sortu zaio eta irakurketaren hasiera geldiarazi behar izan du komunera joaten ahal izateko. Itzultzean barkamena eskatu eta Josebari irakurtzen has dadin eskatu dio.

Josebak paperak begiratu eta lehendabiziko orrialdean agertzen den marrazkia erakutsi die lagunei. Bertan karateka bat ageri da Jonen aurpegiarekin. Karatekaz jantzita dago. Marrazkilariak karikatura ederra egin dio. Aurpegia mehe-mehea, ile adatsa kizkurtua eta txirikordaz beterik eta izugarrizko sudurra. Txelisek izenpetuta dago.

–Txelis marrazkilari horrek ederki marrazten du, alajaina! Beha ezazue zer nolako pioleta jarri didan sudur gisan.

Jonek irribartsu erran ditu eleok, aspaldin konplexuz beterik zegoen bere sudurraren luzeera zela medio, orain aldiz onartu egin du.

–Beno ba, irakurtzen hasiko naiz... egon, egon, ohar bat jarri baitu irakurtzen has aitzin kontutan hartzeko, honelaxe dio oharrak:

Joni eskainitako orrialdeotan Italiara egin genuen bidaiaren berri ere ematen da. Hobe ulertzeko gela honetako armairuan diapositiba-projektagailua utzi dizuet, bertan Italian egin genituen diapositibak daude. Narrazioaren ildoari jarraiki zakizkioten (hau da, hau aditza!) utzi dizkizuet. Jon eta biok biluzik agertzen ginena kendu dut, ikusi nahi izanez gero Jonek badu bertze kopia bat, beraz, hari eskatu.

Joseba armairura abiatu da projektagailu eske. Atera du, antolatu eta argi indarra eman ere dio. Gelako pertsianak hertsi eta dena ilun geratu da.

–Orain komeria heldu zaigu irakurtzeko. Esku argi bat beharko dut edo eta meatzariek darabilten argi horietariko bat, kaskoan paratzen dutena alegia.

Argia berriz piztu eta bilatzen hasi dira, azkenean Marik Mateo zenari oparitu zion flexoa ediren eta Josebari dio eman.

–To, har ezak eta jarri mahaian torloju honekin.

–Esker mila, ea ba, irakurtzen hasiko naiz, gainera agian Italiari buruzko kontaketa ez dago hasieran eta orduan gelako argi normalarekin irakur dezaket. Hasi eginen naiz beraz...

JON LEZAUN LOGROÑO.

Jon Lezaun Logroño, Uhartearra, nahiz eta ama Errioxarra izan aitaren aldetik euskalduna. Hire jatorri horrek beti buruhauste galantak sortu dizkik. Zeren Lezaun euskal deitura baita, argi, baina Logroñoren euskaltasuna jendeak ez zeukan horren garbi. Horregatik behin guk orduan ezagutzen ez geunen Txillardegi izeneko baten liburua ekarri higun eta azalpen batzuk eman hizkigun, oraindik oroit nauk hire azalpenez:

«Riojari buruz honela dio TXILLARDEGIK: Errioxa berriantxaren ordez, «Larrioja» idatziko bagenu hobeto; «Larreolha» idazkera zaharraren ildotik». Beraz Larrioja euskal izena da, larre ola.

Hamahirugarren mendean Ojacastro-ko biztanleek eskubidea zuten itzultzailerik gabe euskaraz deklaratzeko. Hau ere Txillardegi jakitun honek dio. Eskubide hori ez dugu Iruñean guk ezta gaur egun ere. Beraz Larrioja euskalduna izan da bizimoduz eta LEGEZ. Gainera hau dionak badu tesis doktorala gaindituta euskal filologian, hortaz, badaki zertaz ari den. Tira ba, laburbilduz: Ez dakit zer erran nahi duen LOGROÑO-k baina Larrioja euskalduna bazen eta Logroño Larrioja-ko hiriburu nagusia bada litekeena da izen hori euskalduna izatea.»

Azalpen ona egin huen eta lagun guztiok gonbentzitu egin gintuan. Gero denok hasi gintuan Txillardegi delako haren liburuak irakurtzen. Hiri esker. Haren fan-talde bat antolatu nahi izan huen baina hartarako toki bat behar genian eta sosik gabe...

Ez diat sekula barkatuko «Peru Leartzako» liburuaren amaiera aldez aurretik kontatu izana. Nik guti behar nian liburua bukatze-

ko, hik, ordea, bukatu berria huen eta halako batez aitzindariak bere buruaz beste egin behar dueneko unean nintzelarik hik bukaera azaldu eta «suspentsea» hautsi. Beti ohitura bera izan duk. Bukaera ezagutzen baduk filmea, liburua edo dena delakoa akitu aitzin bertzeei kontatzearena. A zer istiluak zinematokietan hire mihi salatari horri esker. Oroitzen al haiz zer istilua «Sugarraldiak» filmea ikusi genuenean? Hik bigarrengo aldiz hekusan. Filme osoan erne ibili ninduan hiri ahoa ixteko prest mintzatzeko keinurik tipiena egiten bahuen. Filmea ia-ia bukatzear zegoenean eta ni ohartu ere egin gabe ziplo, deplauki eta ozenki erran huen:

–«Suzalea su-hiltzailea da, Glen Scott alegia.

Hura zalaparta! haiek oihuak! haiek zituan haiek poltsa-jaurtiketak. Nekez atera gintuan zinematokitik.

–Egia duk, Jon. Hirekin filme bat ikustera joateko hobe duk hik filmea ikusi gabe izatea bertzenaz akabo. Ezin egon haiz heure mihiaren jabe?

Mari mintzatu da oraingo honetan, ohitura gaizto hori erdi irribartsu baina leporatu egin dio. Jon gora begira dago. Begiak hertsirik dauzka eta buruaz halako onarpen keinuak egiten ditu. Hunkituta dago Mateori haren xelebrekeriak azken uneetan ere gogoratzen zaizkiolako eta, aldi berean, bere gaixtakeritxoek damututa eta herabetua.

–Arrazoia dun, Mari. Ni baino gogorrago dun beti bukaera amaitu aurretik azaltzeko gogo hori. Gure herriko zinematokian sartzea debekatuta zeukanat jendea nirekin haserretzen delako. Beno horrek ez din axolarik segi dezagun irakurketarekin.

Josebak, berriz, irakurtzeari ekin dio:

Orain lerrook idazten ari naizeno hire aurpegi aztoratua imaginatzen ari nauk. Zeharo lotsatuta hago, ahalkegabeturik, herabe, gorri-gorri, izerditan. Lasai motel, ez duk ezer eta. Xelebrekeria guztiak ez ditik Txabik egin behar. Egia duk filme batzuk izorratu dizkiguala baina zinematokiko istiluei esker eginiko barreek barkamena mereziarazten diate. Nik, jator aitortuko diat, sekulako barreak egin ditiat jendearen aurpegiak ikustean hik filmeen

bukaerak azaldu dituanetan. Jendea aho zabal-zabalik azken eszenaren zain irrikitan, aiherrak, berantetsita egotetik halako joera ilun, haserre, bortitz, mehatxagarri eta ezinago gogorrera lipar batez pasaraztea hagitz aktore pribilegiatuen esku zagok soil-soilik. Eta hik aldioro-aldioro lortzen huen, Josebarekin hasi beharko huke entsaiatzen hire etorkizuna antzerkigintzan baitago.

Orain mundu guztiari kontatuko zioat nola ezagutu genuen elkar, har itzazue diapositibak eta eman itzazue dauden orden berean. Zuen gustokoak izatea nahi nuke. Hasi baino lehen azalpen tiki bat. Nik beti Europa ezagutu nahi izan dut eta berebilik ez dudanez halako bidai antolatu batean apuntatzea erabaki nuen. Beti bezala bidai aukeraketa hondar tenorean egin bainuen ez zegoen Italiarako txartelik baizik. Italiara ba, pentsatu nuen, azken finean Europa osoa ikusi gogo banuen berdin zen nondik hasi. Hasi lehendabiziko diapositibarekin.

Josebak projektagailua piztu eta aurreneko diapositiba agertu da gelako pareta zurian. Diapositiban jende anitz ageri da. Autobus urdin distiratsu bat eta kapeladun gidari iletsu bat.

Lehen diapositiba.

Hor talde osoaren argazkian ikusten duzuen jende hori Euskal Herriko toki askotatik etorri zen bidai programatura. Bizkaitar bi (hau bizkaieraz, bizkaitarrak zirelako), arabar bat, hogei Oriotar (bai, hogei!), bi lapurtar, lau zuberotar eta gainerakook naparrak. Gidaria aparte jarri nahi nuke honek liburu oso bat mereziko lukeelako. Eibartarra zen, eta eibartar orori bezala Su Ta Gar taldea biziki laket zitzaion. Taldearen diska guztiak buruz ikasarazi zizkigun. Ikaragarria zen ikustea nola mugitzen zuen bere txima luzea alde batera eta bertzera musikari jarraikiz. Arront jatorra zen baina batzuek ez zuten ongi ikusten bertze zintarik ezin jarri izana.

Segi dezagun. Hor, taldeko ezker aldeko bigarrena, atorran «**ez izan potroso, jaietan alai hadi oso. Lizarrako bestak 95.**» jartzen duen hori, bizardun eta adasdun hori nik orduan ez nezaguen Jon da. Egia, orain zeharo kalimurritza den arren garai hartan itxura huraxe zuen. Argazkia bidaia hasi aurretik egin ziguten. Ni bertze puntan agertzen naiz. Eskuin aldeko lehena.

–Eskuin aldeko lehena? gaineakoak mankutsetan dauden bitartean lastiko eta guzti jantzita dagoen hori? –Txabik, harrituta, Joni zuzendu dio galdera hark egiazta diezaion.

–Bai, bidaia izugarrizko sukarrak hartuta hasi zian.

–Segi dezagun diapositibarekin.

Badakit harritzekoa dela lastikoarekin joatea baina egun hartan arront eri nengoen. Bezperan Eugiko urtegian igeri egiten ihardun nuen eta hoztu ere egin nintzen. Horra azalpena. Autobusera igaiterakoan txartel bana zozketatu ziguten autobuseko besaulkiak banatzeko. Niri 17.a egokitu zitzaidan. Gora igan naiz, besaulkia bilatu, aurkitu eta eseri egin naiz. Nire ondoan, hemezortzigarren besaulkian, andere zahar potzolo bat jarri da, urduri baino urduriago. Bere senarraren bila dihardu, halako batean aurpegia alaitu zaio. Senarra heldu da eta 20.a duela ikusarazi dio bere emazteari txartela erakutsiz. Gero, soinburuez halako etsipen keinua egin eta ondo-ondoan jezarri da. Autobuseko pasabideaz bertzaldean. Eskuin aldeko leihoaren parean. Handik gutira hemeretzigarrena suertatu da, besaulkia aurkitu ondotik bere jarlekuan eseri da. Andereak bere senarrari solas egin nahi dio, senarrak, aldiz, ez du ongi ikusten, hor ari dira bi senar-emazteak buruz ezker-eskuin egiten hemeretzigarrenaren buru-oztopoa ekidin nahian. Azkenean bizardun adasdunak bere tokia aldatu dio senarrari kortesia haundiz. Bi zaharrek, orain lasaiago, beren eskuetatik elkar lotu dute. Egoera ez da oso erosoa nonbait eta, azkenean, andereak niri hitz egitea erabaki du:

–Bárkha xáuna, zérbeit galdátü náhi néizün. Álda haite éne senarráren truk, óthoi?

–Lasai, ez dut problemarik.

Lekua aldatu diet ni hemeretzigarren besaulkian jarriz. Haien urduritasuna lasaitu nahian jatorriaz galde egin diet:

–Barkatu, zuek bizkaitarrak al zarete?

–Aizak, hobe eginen bahu ikastaro bat euskalkiak ikasteko.

Mintzatu dena bizardun adasduna izan da, haren aurpegiak ez du zalantza izpirik uzten: ergeletsi egiten nau. Bere solasari ekin dio berriro:

–Argi zagok xiberutarrak direla. «u» berezia, azentua aldrebes, «hatxe»-a ahoskatzen ditek eta herskari famatuak, «kh» eta «th» direlakoak ere ahoskatzen ditiztek. Gainera «eskatu» erran beharrean «galdatü» erraten ditek iparraldeko erdarakadarik ospetsuena, frantseseraren eragina, frantseseraz «demander»-ek bi esanahi horiek baititu. Esaldi bakar batetik hori guztia antzeman daitekek. Eta hik galde egin duk ea bizkaitarrak diren, maho zagok. Puntatik puntara joan haiz. A zer bidaia heldu zaidan!

Jon badakik, askotan gogorarazi diadalako, hirekiko lehen solas hark jota utzi ninduela. Harrituta utzi ninduan. Niri zegokidan eserlekua kortesiaz aldatu nioan emazteki gaixo hari eta sari gisan Basajaun bezalako gizon mikaztu baten ondoan esertzera gondenatu nian neure burua. Ordain ederra, alajaina! Zinkurin sorta galanta bota nian neure artean.

Gero autobusa irten egin zuan Iruñeko geltokitik eta Tafallaldean-edo hik, damu, ordura arteko bidai osoan kristalaren kontra kolpeka aritu ondoren heure burua zuritu nahi izan huen:

–Barka nazak gizona, ekandu gaiztook! Uste diat, ez, uste diat gutiegi duk, arextian zeharo pasatu naizelako erabateko ustean nagok. Bazekiat, ondo jakin ere, mundu guztiak bere arazoak dituela baina atzo neska lagunak utzi naik eta arront haserrekor geratu nauk. Mesedez onets ezak ene damua.

–Barkatuta hago, baina nola ikasi duk hain ongi euskalkiak bereizten. Enetako naparrera ez diren guztiak bizkaiera dituk.

–Irakurriz eta ikasiz. Barka nazak, arren. Eni Jon zeriztak, Jon Lezaun Logroño.

–Logroño? Eta euskalduna?

–Bai, ama Arnedokoa duk baina aita Arantzarra. Gainera amak A.E.K.-n apuntatu eta ikasi egin dik. Solasean poliki-poliki egin zezakek. Ostian lana egin dik.

Honelaxe hasi gintuan harremanetan. Gogoratzen haiz?

–Nola ez gogoratu. Bidai hartara neska atzentzera joan nintzen eta aurreneko solasean irainka hasi. Maho! Mateori sekula ez nion aitortu baina mesede ikaragarria egin zidan bere adiskidetasuna eskaintzean.

Jon eseri egin da, lurrera begira bezala jarrita dago ez du ja ere ikusten baina. Begiak galdurik bezala-edo dauzka. Zinkurinka ari da. Marik zerbait erran behar duelakoan...

–Lasai Jon. Mateok bazekian hik hion mirespena. Horregatik joan zuan karate ikastera. Hiregatik.

–Bai, gainera hura joan orduko nik gerriko urdina ninan eta nik baino lehenago erdietsi din beltza. Ikaragarria zunan flexioak egiten. Tira Joseba, dugun irakurketarekin segi.

–Aurrera ba...

Aurreneko esperientzia zinez pozgarria. Guti iraun zian, beharrik. Tira ba, nik uste bigarren diapositiba ikus daitekeela.

Josebak bigarren diapositibara pasatzeko projektagailuaren botoia sakatu du.

Bigarren diapositiba.

Hor ikus dezakezuen leku hori Tutera ondoko zerbitzugunea da. Aise somatu dukezuenez ez ginen gelditu pix egitera. Autobusa hautsi egin zen. Gidariak erran zigun transmisioan huts bat zegoela. Jendea oihuka hasi zen. Lehenik eta behin abagunea aprobetxatu zuten musikak eragindako haserrea adierazteko. Argazkian arront ongi ikusten da haserrea. Hor besoak gora dituen andere horrek istilu itzela antolatu zuen:

–Aisu, baiñan es al da larregi musikia altue eroatia, beti sure diskak ipinten dosus. Orain autobusia be ixorrau ein dosu.

–Aisu, nik ez dot eser ixorrau. Txarto egoan.

Ez naiz gauza solasa haien euskalkian idazteko. Istilu ederra izan zuten eta hitz jarioa bizkaiera hutsean egin zutenez Joni gal-

detu behar ukan nion ea zer zioten. Hiri Jon, hiri esker ulertu niean. Hire euskalkizaletasunari esker. Hiregandik asko ikasi diat, baina tira ba, ez gaituk orain goibel jartzen hasiko. Hau ene despedida duk eta despedidek alai izan behar ditek. Segi dezagun diapositibarekin. Argazkian harrapatu nuen unea oso barregarria da. Gidariak, nazka-nazka eginda, gogoari ezin eutsiz andereari hurbildu, itzuli, bere prakak atzeko aldetik jaitsi eta ipurdia dio erakutsi. Gainera ezker ipurmasailean tatuajea zeraman: HOR KONPON! Antza denez horrelako gauzak egiteko ohitura haundia zeukan eta esaldi ospetsua tatuarazi zuen. Pentsa zer ele ederrak bota zituen andereak. Egia erran ez naiz gauza errepikatzeko bizkaiera nekez ulertzen baitut.

Argazkiko eskuin aldean Jon ageri da. Edaten dihardu. Patxarana. Izugarrizko mozkorra harrapatu zuen (hala izugarrizko mozkorrak harrapatu zuela erran beharko nuke?). Gidariak bere konpainiako bertze autobus bat bidaltzeko eskatu zuen eta etorri arte ordu betea eman behar izan genuen zerbitzugune hartan. Jonek, denbora hobe pasatzeko, sekulakoa harrapatu zuen. Hiketan ihardun zuen bizkartar anderearekin, bizkaiera hutsean. Auskalo zer erran zion baina atsoaren hondar eleek irmo diraute ene burmuinean:

–Asto hori! kateatute ebiltia meexi dok.

Gero autobus berria jin zenean enekin aritu hintzen paternal baino paternalago, gogoratzen al haiz Jon?

–Askotan kontatu izan dit, baina behin ere ez naiz une hartan gertatutakoaz oroitu. Oso gaizki nagoenean, patxarana edanez gero okerrera egiten dut. Gainera, nahiz eta lagun bat ezagutu bidai hartan ene asmoa zen edanez heriotzeraino jotzea neskak uzteak jasanarazten zidan pairuari ihes egiteko. Aurreko astean ikusi berria nuen «Leaving Las Vegas» filmeak aterabide hori proposatuko baitzidan-edo. Nicolas Cage neu nintzen. Edan eta edan eta edan. Ez nuen bertzerik egin nahi. Edan lehertu arte. Bizitzako pasadizu guztiak damutzen zitzaizkidan. Ez nion neure buruari ezer onesten. Mertxerekin harremanetan hasi izana damutzen zitzaidan. Mertxerekin eztabaidatu izana damutzen zitzaidan. Mertxek

bertze lagun bat bilatu nahi izatea neure buruaren errutzat jotzen nuen eta hura ere damutu egiten zitzaidan. Gero Mateorekin izandako istilua ere damutzen zitzaidan eta eten gabe edaten hasi izana ere. Eta bestondoa, eta ondoeza, eta bertzeri kontatu behar niola aitortzea bera ere damutu egiten zitzaidan. Bertze hori, aldiz, eta berak sekula ez jakinagatik, Mateo izan zen. Bidai hartatik bizirik ateratzea lortzea hari zor diot. Eta ez nion behin ere aitortu. Ez... nion... aitortu... sekula ere.

Jonek nekez bota ditu azken hitzok. Erdi damurik erdi negarretan dago. Egoerok benetan bitxiak dira. Pasadizuak gogorarazten direnean denak pozik, hilkutxan dagoen adiskidea hilkutxan dagoela gogoratzean, berriz, malkoak eta negar-zotinak. «Aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onenak» dio Hertzainak taldearen esaldirik ospetsuenak, hala ere, une latzotan, une hits, goibel eta erdiragarriotan denei damutzen zaie beti suposatutzat ematen den elkarriko mirespenaren berri lagun joanxeari eman ez izana. Adiskide talde honetan beti berdin gertatu da. Ez baitira ongi pasatzera baizik biltzen. Adiskide min-minak (batzuetan minduak ere) dira baina ez dute elkar beren kexez kezkatu gura. Oraingoa bezalako egoerak suertatzen direnean, aldiz, bertze era batera jokatzea gustatuko zitzaiekeen. Josebak inpas hau eten egin du:

–Segi dezagun. Hemen bada oharño bat, halaxe dio:

Hurrengo diapositibetan Toscana agertzen da. Argazkiak pasa ditzakezue gelditu gabe hemen idatzitako iruzkinek ez baitute helburu bakar bat baizik. Erakustea zenbat liluratu gintuen Italiako eskualde zoragarri honek. Toscanan dena da artea. Hor ageri dira Firenzeko oroigarriak, Duomo famatua, Batisterio-ko «zeruko atea» ospetsua, il campanile (auskalo nola idazten den italieraz), Akademia museoko «David» liraina bere gorputzaren giharre eta zain guztiak ezinago garbi erakusten dituelarik. Sienako Duomo (katedrala) ospetsua, Lucako enparantza famatua, Pisako «mirarien landa» bere dorre oker eta guzti, San Gimilianoko dorre garai famatuak aspaldi gotorleku gaindiezinak. Toscana ikaragarria da. Euskal Herrikoa izan ez banintz Toscanarra izatea gustatuko zitzaidakeen. Firenze-koa. Gainera ikaragarria da gauetan Duomoren plazan dagoen musika giroa. Behin bidai hartan ginelarik bortz

talde aritu ziren Batisterioaren ondo-ondoan. Azkenean gauzak ez nahastearren txandaka jotzea xedatu zuten. Lehendabizi munduko hiri guztietako xoko guztietan dauden peruar talde horietariko batek jo zuen, ondoren alemandar fanfarria batek, gero irlandar gaita-jole talde batek, laugarrenik errusiar talde balalaika-jole batek eta bosgarrenik, hau bai zoragarria, Euskal Herriko txistulari talde batek. Iruñekoak, «Harkaitz» izeneko txistulari taldeak. Zuzendariak «ferrobiarioa» ezizena zuen. Felix izenekoa. Sekulako trebezia zuen danbolinarekin. Harro-harro kontatzen zuen Maurizio Elizalderekin txistua joa zuela.

–Oso gizon jatorra, geroztik hirutan ikusi dut eta beti agurtzen nau. Azkenekoan Iruñeko udaletxean ikusi nuen kitarra-jole potolo batekin batera flauta jotzen. Ezkontza zen. Hiru Truku taldearen abesti batzuk jo zituzten.

–Aizak Jon, nola dakik hainbertze abesti eta hainbertze talde?

–Zaletasun haundia zeukat. Mateo zenak ere bazeukaan. Halere ez nuke parada hau pasatzera utzi nahi zerbait gogoratu gabe. Bidai hartatik itzuliz gero Mateo zenak karate ikastera apuntatzea erabaki zuen. Nik hura sartu orduko, dakizuenez, baneraman gerriko urdina gaindituta. Hala ere hark gogo biziz ekin zion ikasteari eta bi urte exkaxetan gerriko beltza bereganatua zuen. Hura zen hura morala. Nik, aldiz, oraindik gainditu gabe daukat. Tira ba, Joseba, uste diat ene atala burutzeko guti behar dela, aki dezagun ba.

–Arront guti falta duk hirea bukatzeko, aurrera.

Jon adiskide mina, fina, burua bete eskatima baina aldi berean beti bakerako grina. Nik uste horregatik hasi hintzela karate ikasten. Lasaitzeko, heure paranoiak oro gimnasioan uzteko. Hala ere gaur ene azken agurra egiteko unean zerbait erratera ausartuko nauk. Hire teknika hagitz ona duk baina ez duk gerria behar bezainbat lantzen eta hori gertatzen zaik flexio eta abdominal guti egiten dualako. Gero aurreneko tekniketan ongi aritzen haiz baina katak eta ariketak aitzina joan ahala gerriko indarra galduz joaten haiz eta jarrerak gero eta okerragoak izaten dituk. Egin ezak gimnasia gehiago (edo «gimnastika», Sarasola izeneko batek gomen-

datzen zuen bezala) eta landu gerria. Gerria gogortzera hik daukaan teknikarekin aise erdietsiko duk gerriko beltza. Bazekiat lortuko duala hori dela eta honatx neure oparia, ireki ezak hiretako neure armairuan utzi dudan kutxa.

Jon armairura joan da, atea zabaldu, barnean begiratu, kartoizko kutxa hartu eta gelara itzuli da irekitzeko asmotan.

–Zer ote dugu? Zer ote dugu?

Jonek, berantetsirik, kutxa urratu eta barnetik jantzi zuri-zuria atera du. Sartuta zegoen plastikozko poltsa haustean gerriko beltz bat erori da. Jon harrituta dago. Jantzi zuria behin eta berriz begiratzera bermatu da. Ukitzen hasi da. Bi eskuekin tiraka eta tiraka.

–Zer da Jon?

–Hau sal daitekeen kimonorik garestiena dun Mari. Oso oihal berezia dun eta arront gogorra. Zera... jantzi eginen dinat.

Jonek zeraman arropa erantzi eta karate kimonoa jantzi egin du. Ondoren patxada haundiz gerrikoa paratu du. Gero kata bat egiten hasi da.

–Entzun, entzun ezazue zer zarata berezia egiten duen jantzi honek jotzean.

Bat-batean bira erdia egin du hanka bat lurrean utziz eta bertzea lurrean jar aitzin eskuin ukabilaz kolpe zirkularra markatu du bide batez (bide oso-oso laister batez) prakak itzulia egitean utzitako triangeluan kolpe azkar, bizkor eta lehorra eman duelarik. Gero oina lurrean paratu du. Denek aho zabalik segitu dute Jonen kata zoragarria.

–Kontto, hori duk, hori trebezia. –Txabik mirespenez hitz egin du–. Noizbait banketxean mailegu bat eskatu behar izanez gero hirekin joanen nauk. Ez zidatek ez nolanahi ere ukatuko, alajaina!

–Kimonoa ikaragarri ona duk. Honekin eta Mateoren laguntzarekin, non-nahi egonik ere, beltza sarri eskuratuko diat.

Jon kimonoa eranzten hasi da. Josebak tarte hau komunera joateko aprobetxatu du. Txabik, bizkitartean, apalategitik «erdarakadak» izeneko liburua hartu eta begiratzen hasi da.

–Hara zer dioen (liburua hertsi eta azalean izena irakurri du) Gotzon Garate izeneko honek, KONPONDU: horiek elgar ongi aditzen dute, ez dugu biek elgar aditu, ez dute elgar aditzen, alkarrekin ondo aitzen dira, biek ongi aditzen dute elkarrekin, biek bietara ondo aituten dute, aregaz ez zen aituten eta abar. Nik beti «ez gara ondo konpontzen» erraten dut. Esaldiok jatorrago dirudite. Liburu interesgarria hau, Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak. Gotzon Garatek egina. Irakurri beharko dut... tira ba ea Joseba itzultzen den komunetik eta jarrai gakizkiokeen irakurketari.

–Hori duk, hori aditza. Ongi Txabi. Txisteak kontazeaz gain hizketan ere dotore dakik.

Joseba komunetik jalgi eta hirukotearengana abiatu da. Txirrikitua irekita darama.

–Zer Joseba, Txorinoa barnean usteltzeari itzuri nahian ala?

–Txorinoa, baina zer txorino eta zer txorino arraio?

–Txirrikitua gizona, txirrikitua irekita utzi duk, kaiolako atea alegia.

–Ño, zer lotsa! barka, zera... segi dezagun geure irakurketarekin. Hurrengo txanda Marirena da.

Josebak Mariren eskutitza hartu eta irakurtzen hasteko gertu da.

MARI LATSAGA GALLASTEGI.

Lehendabiziko orrialdean karikatura bat dago. Txelis-ek egina, naski. Bertan Mariren aurpegia eta lepoa ikus daitezke lorontzi batean landatuta. Mari oso landarezalea da. Ilea bitxilorea da. Mariri biziki laket izan zaio marrazkia.

–Txelis honi opari bat egin beharko genioke. Zeinen ongi marrazten duen!

–Gainera Mateok gure gustoak erranen zizkionan. Karikatura guztietan asmatu baititu gure zaletasunak.

–Beno, iritsi zain txanda Mari, presta ezan heure burua.

Joseba izkribua gainbegiratzen hasi da. Orri batzuei ziztu bizian begietako so laisterra egin die irakurketari hasiera eman baino lehen. Hondarrean irakurtzera bermatu da.

Mari Latsaga Gallastegi. Taldeko neska bakarra, nahiz eta denboraldi luzeak taldetik bereiz ibili senargairen bat kari. Mari denondako kontsolagarri, alaigarri, entzunkor eta ulerkorra. Arazoak konpontzen izugarrizko ahaleginak egiten dituena. Mari liraina, sotila, lerdena, bai lerdena, hain zuhaitzalea izanik berauei dagokien adjetibo hau ere merezi baitun. Heu haiz, heu, Iruñeko (are Euskal Herriko) neskarik eijerrena. Oroit haiza nola ezagutu genuen elkar? Bigarren ikasturteko lehen eguna zunan. Ni jostetan ari nindunan Leire Bastida barridearekin. Korrika eta presaka elkarri segika. Bat-batean berak harrapatzear nindeukalarik haren ostikadatxoa ekiditeko gelako atea itxi nahi izan ninan une hartan sartzen ari zen neskaren eskuin erpurua ateaz harrapatu nuelarik. Harrapatu eta hautsi, ia birrindu. Nik korrika segitu ninan baina hire oinaze oihuek geldi eta gibelarazi nindinaten. Atea askatu, hik heure pototsa atera eta ezker ahurraz eutsiz mina eztitzen saiatu hintzen. Begirada latza bota hidan, nik botikinaraino lagundu hindudan, han zegonan Julio Gutierrez atezain gaiztoa bezain ozpindua zeren haren aurpegiak mingostasun mikatza isladatzen baitzuen. Haren hitz hitsak bezain karminduak oraindik gogoratzen zaizkidan:

–Honek ez din konponbiderik, Mari, beso eta guzti ebaki beharko dinate eta hi Mateo hoa zuzendariarengana ea institututik botatzen hauten.

Hura izua!, bigarren ikasturteko lehen egunean bota nahian zebilzkidatenan. Beharrik gero ospitaletik bueltan hik ene alde egin huen. Nahi gabe izan zela, oharkabean eta abar. Bai andere!,

hasieraren ederra gurea. Gero historia azterketa famatu hartan galderaren erantzunak eman nizkinanean zeharo adiskidetu gindunan.

–Egia, nik egun hartan ez nekien ezer. Aste osoa emana bainuen aitak ekarritako txakurrarekin jolasean. Badakizue, BIZKOR txakurrarekin. Azterketaz gogoratu ere ez nintzen egin eta gero egun hartan Mateori eskatu behar izan nion laguntza, eta berak eman ere! Bikain bat erdietsi nuen hari esker.

–Orduan kopiatzen ateratzen hituan nota on haiek. Nik uste ninan oso ikasle ona hintzela.

–Baito! Gorputza papertxoz beterik eraman ohi nian azterketetara. Manketan, praketan, txirrikituan, belarrietakoetan, behin baita sudurzuloan ere! Gero gogoratzean barre algara galantak egin ditiat.

–Gauza ona dun gero, propaganda ona izatea. Hik neska zintzo ospea huen. Hara nork eta azerietan azeriena. Maho zagon, maho. Tira ba, segi dezagun irakurketarekin.

Gero, denbora iragan ahala heure ahopeko guztien jabe egin nindunan, haatik ez baininan behin ere horrelakorik eskatu. Hire gustoko bilakatuko nindunan nonbait. Orduantxe, hots, heure burutazio zein mamuen berri ematen hasi hintzaidan une hartantxe hasi zunan ene pairua. Ni hitaz, hirekin... Jon nola erran behar da hau?...

–Bietara ongi zagok Mateo, bietara ongi.

...berdin dun, hitaz edota hirekin maiteminduta bainengoen, bainago eta bainagoke (honez gero ez, hilok ez baikaitezke maitemindurik egon). Bazakinat orain ez dela hau errateko tenorerik aproposena baina jakinaren gainean jarri nahi hindudan.

Mari aho bete hortzekin darraio azalpenari. Oraintxe izan du aurreneko aldiz Mateoren maitasun-mirespenen berri. Begiak zabal-zabalik dauzka. Bekainak gora-gora eginda. Ahoa ere aski zabalik. Elerik ere erran gaberik sentipenezko negar-malkoak isuritzen hasi zaizkio. Minduta dago, inork ez du zalantza izpirik horretaz. Baina bere samintasuna adiskidearen galeragatik baino haren

amodio aitorpen berankorrarengatik da batez ere. Inoiz ez dio barkatuko Mateori bizi zelarik antzemanarazi, edo eta somarazi bederen, ez izana. Ezta bere buruari haren sentipenez ohartu ez izana ere. Ezbehar mingotsak nozitu ditu maitaleek eraginik. Behin eta berriz bilatu nahi zuen lagun bikaina bere ondoan izan du eta ohartu ere ez zen egiten. Uste baitzuen Mateo ezberdina zela, gay-a zela, alegia, beti mutilekin ibiltzen zelako. Ez baitzuen behin ere neska batekin harreman serioetan ikusi. Beti Txabirekin, edota Jonekin edota Uitziko Ramon Baleztenarekin. Menturaz hargatik zegoen hain lasai Mateorekin, hark ez baitzekusan Mari adiskide moduan baizik eta ez gainerako mutilek bezala, hots, bi diti eta... . Hargatik, agian, hari konta ziezaizkiokeeen bere nahi, desira, ezbehar eta pairu oro eta hargatik, beharbada, sekula ez zitzaion otu ere egin harekin inolako amodiozko harremanik burutzerik. Beharbada. Beharbada. Haren bizitzan beharbada sobera dago eta orain da ohartu. Orain da ohartu betidanik eske ari zena pare-parean izana duela eta ez duela aintzatetsi, ez zentzu hartan behinik behin. Negarrari eman dio. Negar saminari eman dio. Negar-zotinka hasi da. Ez du hitzik ere egiten baina negarretan dihardu eten gabe. Txabi eta Jon kontsolatzen ahalegindu dira. Gogotik ahalegindu ere! Ezin kontsolatu izan dute, ordea. Mari komunera abiatu da. Atea barrendik hertsi du eta xorrota ireki du. Aurpegia xahutu du. Ispiluan bere burua ikusi du eta «ergela» hitzaz iraindu. Begitartea idortu eta kanpora jalgi da. Denak zain dauzka. Inork ez daki zer erran. Denentzat izan da ustekabe galanta Mateoren aitorpena ez baitzekiten gai honetaz ja ere. Ezta bere lagunik minena zen Txabik ere. Azkenean Mari mintzatu egin da:

–Ustekabearen haundia!, Joseba, mesedez buka dezagun hau lehenbailehen. Segi irakurtzen.

Ez dun hau aitortzeko unerik aproposena. Hau bezalako «arazoei» irtenbidea ahal deno eman behar zaien. Orain alferrik dun. Bazakinat gaizki pasatzen ariko haizela baina behin betiko maldizioa bota aurretik jakin ezan zer gertatu zen Iñaki Garraldarekin. U.B.I.n ginelarik Iñaki Garralda ospetsuarekin harremanetan hasi hintzen. Iñaki Garralda txit ospetsua zunan haren aitak berebil kontzesionarioa zuelako eta berak aitaren berebil berri guztiak fro-

gatzen zituelako. Neska guztiok igan nahi zenuten haren autoetara. Hik lortu huen, mutilekin nahi huen guztia lortzen huen ederrena baihintzen. Gauzak, aldiz, handik gutira okertu zitunan eta hirekiko harremanak eten egin zitinan. Hark eten zitinan! Jakina, hura gertatu eta berehala hara nora heldu zaidan ene bihotzeko pinpilinpausa bere porrota kontatzera. Ni harrituta gelditu nindunan, ordura arte heuk uzten baihituen mutilak baina oraingo honetan mutil batek utzi hinduen hi. Hura ergela! Hi nahigabetua, jota, heure buruaz beste egiteko prest ergel harengatik. Kontatzetik gelditu hintzenean heure etxera joan hintzen. Orduan nik zerbait egin behar nuela erabaki ninan. Baita egin ere!

Iñakiri neska lagun berria zuenaren etxeraino jarraitu nintzaionan, haren etxetik atera arte berebilaren parean iguriki ninan eta irten zenean jipoitu ninan. Olo latzak eman nizkionan. Saihetsetan, hanketan, sabelean eta karate irakasleak beti debekatzen zizkigun lekuetan ere, hau da, begietan eta... barrabiletan. Nik begitartea estalita neukanan. Jipoitu ondoren egun hartan erabilitako MERCEDES 300 delakoaren gurpilak zulatu nizkionan. Gero alde egin ninan. Lau aste eman zitinan Garraldak ospitalean, izorra bedi! Nor izan zitekeen hain ergela hi bezalako neska ezinago on, eder eta liraina uzteko? Nik bizia eman nezakenan hirekin harreman herstuetan hasteagatik. Orain, berriz, alfer lana. Barka nazan, ahal badun behintzat, orain aitortzeagatik. Beldur nindunan hire adiskidetasuna galduko ote nuen neure barne sentimenduak adieraziz geroztik. Barka nazan, otoi.

–Barkatuta hago, barkatuta hago. Nik gay-tzat hindudan beti mutilekin henbilelako. Nola jakin nezakeen? Ene galdua! Nire adiskiderik minena eta nire mutil lagunik onena izan zitekeena, biak batera galtzea ere! Dena den aitortu beharra diat Mateo maitea, pozik hartu nuela Garralda jipoitu zutelako berria. Bertzeren minari barre egitea ez omen duk zuzena, nik, aitzitik, oso pozik hartu nian. Izorra dadila! Beti uste izan diat jipoia atzean utzitako neskaren baten aita edo anaiaren batek emanen ziola eta hara nork eman zion. Ongi emanda zagok, alajaina! Tira ba Joseba. Buka ezak nirea hirearekin hasteko eta segidan etxeratzeko. Nik bakar-bakarrik egon beharra zeukat.

Orain erran dezakedan guztia soberan zagon. Hirekikoa bukatu beharra zeukanat. Pentsa ezan birsortuz gero bago birsortuko naizela eta hik hainbertze maite dunan Iratiko bagadian edirenen naunela. Hantxe egonen naun, Orhiren ondoan. Ahal badun barka nazan, otoi. HIES madarikatu honek heriotzari buruz naraman. Agian egun batez egiazko üskaldunak jaikitzen direnean tirano arrotzen hiltzeko neu ere jaikiko naun neure laztanaren maitatzeko. Hala biz. Arte hartan aukera itzan ongi heure adiskideak. Sarri arte maitea!

Barkatu mesedez, hire oparia atzentzear egon naun. Hik berebilak beti gogoko izan ditunanez LAND ROVER bat dun Lizarrako kontzesionarioan hire izenean eta ordainduta. Atzeko aldeko besaulkia tolesgarria dun hire lagunekin ibili nahi izanez gero berebiletik atera ez zaitezten. Erabil ezan onerako!

Gelako giroa izugarri hoztu da. Denak kopetilun daude. Elkarri zeharka begira daude. Begiraden artean zolari so egiten diote, edo eta oinetakoei. Gaizki geratu dira, zinez gaizki. Opariak berak ere ez dezake hobe giro hits eta goibel hau. Hoztasuna epeltzeko-edo Joseba irakurtzeari ekin zaio.

–Uste dut onena dela irakurketa bukatzea. Nerau bakarrik falta naiz. Irakurriko dizuet eta gero etxera joanen gara.

Josebak berari dagozkion orriak hartu ditu. Bertzeetan bezala hemen ere badago karikatura bat Txelis-ek egina. Bertan Josebaren aurpegia ikus daiteke erdi aroko jantzi luze batez jantzirik eskuan buruhezur bat duelarik.

–Hara Txelis-ek zer egin didan. Hemen nago Shakespeare-ren solasaldirik ospetsuena burutzen. Zinez ongi marrazten du Eibartar honek. Tira ba... leitzen hasiko naiz.

JOSEBA, ENE ANAIA.

Joseba, hire kasua bitxia duk oso. Gu baino bortz urtez zaharrago haiz eta hala ere betidanik izan duk enekin ibiltzeko gogoa. Orain helduxeak garelarik ulergarria duk baina guk hamalau-

hamabortz urte genituenean, hots garairik ergelenean geundelarik gurekin atera nahi huen. Kontutan hartuta hik orduan hogeihogeita bat urte hituela zail duk ulertzen hire gura hori. Dena den sekula ez haiz oztopo izan nahi izan dugun guztia egin ahal genezan. Behin ere ez duk egin anaia zaharrarena. Inoiz ez diguk «aholku hiperbaliotsurik» eman. Beti-beti berdinetsi gaituk. Jendeak ez hau inoiz onetsi. Hasteko gu bezalako ume mukixuekin ibiltzeagatik eta bigarrenik homosexuala izateagatik. Lehendabizi «pederasta» eta gero «marikoia» erraten ziaten. Gizarteak normaltzat ezarritako ereduetatik bereiztea gaizki ikusita zagok eta hik bi arau hautsi hituen: heure adinkideekin ibiltzearena eta heure sexukideekin ez ibiltzearena. Gizaraixo bekataria! Infernua hire! Dena den gurekin egotera bultzaten hinduena ez zuan «sexualitate okerra» adiskidantza baizik. Hik antzerkigintza betidanik gogoko izan duk eta gu hire publikorik sutsuena gintuan. Heure entsaioak egiten hituenean gu bertan geundean. Zorrozki kritikatzeko prest. Beti gogoratuko diat «txu bi or not txu bi» (auskalo nola idazten den ingeleseraz, inoiz ez diat ikasiko!) prestatzen ari hintzenean zer lilura sortzen huen guregan. Tiki-tikiak gintuan eta hi ingeleseraz hasi hintzen serio-serio. Ordura arte egindako obra guztiak euskaraz zeudean, Landartenak, Lertxundirenak, Lartzabalenak... baina ingeleseraz egiteak sortu zigun inpresioa itzela izan zuan. HIK, POTROSO HORREK, BA AL DAKIK ZER DEN ORDU ERDIKO SAIOA ADITZEA FITSIK ERE ULERTZEN EZ DUAN HIZKUNTZAN? Ez duk ezer, deus, ja ere, girtena kendu zaion ahorik gabeko ganibeta bezalakoa. Zero, huts. Hik heure keinu guztiak egiten hitueno gu han, txalo egiten hasteko prest. ZERI EZ GENEKIELARIK, ORDEA. Gero joaten hintzenean Txabiren txanda iristen zuan, pentsa Txabi solasean sasiingelesera mordoiloaz:

—«txu bi or not txu bi tis is te kestion, guen te bitx is te mornin txumorrow jakina zeren eta ai don nou guer is mai poket bat mai poket is emti, ez al da egia?»

Batek zekik zer zioen baina denok barre egiten genian, ez hire bizkar hi, zinez diosat, miresten hindugulako. Barre egiten genian Txabiren «atrebentzia» kari.

–Txabi sekula ez higun erran nondik ikasi huen hainbertze hitz sasiingelesera hartaz?

–Oso erreza, hiztegia hartu eta hitz batzuk buruz ikasi, gero hizketan hasi eta ahal zen bezala tartekatu. Uste dut ez dudala sekula esaldi on bakar bat ere erran. Hor konpon, gu euskaldunak gara, euskalki guztiak ongi menperatu arte ez naiz ingelesera ikasten hasiko.

–Gogoratzen zarete zer gertatu zen ikasturte bukaerako antzerki saioa burutu zenean. Txabik hiltzailearena egin behar zuen. Txabi konta ezak heuk.

Txabik txandari eutsi dio.

–Nik eszena bakarra nuen. Agure bat bazegoen etxeko egongelan besaulkian eserirk eta nik etxean usain ona uzteko erabiltzen den lainoztagailu baten bidez agurea akatu behar nuen. Aurpegia maskarila batekin estalita pozoina airera bota, lainoztatu eta alde egin. Oso erreza ezta? Hala ere neure papera egin behar nuenean protagonismoa haunditzea bururatu zitzaidan. Azken finean hiltzailea ni banintzen zer dela eta mugatu behar nuen neure betebeharra eszena tiki bakar hartara? Orduan ikusixea nuen filme bat gogoratu zitzaidan. Ez dut filmearen izenburua oroitzerik. Berdin da. Bertan ero haundi bat agertzen zen bere eszena egiten. Horixe behar nuen, pentsatu nuen eta eszenatokian agurea eta biok bakarrik egonen ginenez eta nik «neure lana» akitu artean bertze inork parte hartzerik izanen ez zuenez eszena moldatu berriari eutsi nion. Aktoreak eszenatokitik aldendu dira, agurea bakar-bakarrik geratu da. Neu agertu naiz. Obra zuzendariak ene eszena laburraren aiduru da. Nik lainoztagailuari eragin eta gero, joan behar nuen unean neure eszena berria egiten hasi naiz, bakarrizketa da, prefosta:

–Ene buru zoro honek txoratuko nau. Munduaren zoroa, argiak dakuskit, kolore askotakoak, argi urdinak, argi berdeak, argi horiak, ez jaun-andereok, ez dira semaforoak. Argi moreak ere dakuskit, ez jaun-andereok, ez dira Eibar futbol taldearen koloreak...

Hau gertatzen ari den bitarte barregarrian (guretzat, jakina) obra zuzendariak bere liburutxoari so egiten dio. So laisterra hasieran, bakarrizketa hau begirada batez aurkitu nahian. So lasaiagoa gero liburutxo osoa irakurriz, ikusteko ea nonbait ene ergelkeriok ageri diren. Azkenean hazkazalak jaten hasi da. Urduri baino urduriago dago. Institutuko zaindariei keinu egin die eszenatokiaren atzeko aldetik sar daitezen ene eske. Nik, bitartean, neure hortan dihardut:

–Txori bat ikusi dut, han, txori bat bai, txori haundi bat. Beraz ZORI bat erran beharko nuke. ZORI bat, eta zer da bizitza ZORI ON bat baizik? ZORIONA, alegia. Beraz TXORIONA da bizitza. Horregatik denok TXORIATUTA gaude eta, azkenik TXORATUTA. Agure hau bezala, zeinek uste baitu lainoztagailu honen bidez hil dezakedala. TXORATUTA.

–Txabi, ikaragarria haiz. Nondik atera huen ergelkeria hura, hau duk ZORIONA berdin TXORIONA. Ez dik zentzurik. Hala ere arront ondo pasa genian. A zer aurpegiak jartzen zituen zuzendariak.

–Aguregarenak ere ikaragarriak zituan. Gizaraixoak ez zekian zer egin. Bere azken eszena huraxe zian eta han zegoan, ero baten paranoiak jasaten.

–Okerrena da gero aste beteko zigorra ezarri zidatela. Baina txoriena eta zoriarena ergelkeria bazen ez zen askoz ere hobea agure bat lainoztagailu baten bidez hiltzeko ideia. Horrek bai ez zuela sinesgarritasunik, ez horixe! Utz dezagun hau eta buka dezagun Josebarena.

Gero Bilboko antzerki eskolakoak etorri zituan hiri froga batzuk egitera. Frogak gainditu hituen eta Azpeitiko antzokian obra bat aurkezteko parada eman ziaten. Aitzindaria heu. Hura poza! Hara joan gintuan lagun guztiok. Aurreneko lerroa guretako espreski. Oso ongi egin huen. Gero Bilboko eskola hartan segitzeko aukera eskaini ziatenean baietz erantzun hien eta hartan hago. Denok hirekiko adiskidetasunaz harro-harro gaudek. Segi horrela.

Hiri zer oparitu ez nekian. Azkenean izugarri pentsatu ondoren bideo kamara bat oparitzea otu zaidak. Gurasoen etxean atzendu nian. Hire armairu ohian zagok. Bideo kamara horren bidez heure bakarrizketak grabatzen ahalko dituk. Egon bizkor eta beti arte.

Irakurketa guztiak bukatu dira. Sentipen bitxiak azaleratzen hasi dira. Batetik ongi eta pozik daude izaniko opariek merezi dutelako baina bertze alde batetik hits, lagun minak alde egin duelako. Bere buruaz beste eginez. Joseba telefonorantz abiatu da

–Suizidioa da heriotzarik latzena bizirik gelditzen denarentzat, halaxe diote sikiatrek. Beno, nik pizza bat eskatu dut anaiarekin azken otamena egiteko.

Telefono zenbakia sakatu du...

–Bai, etor zaitezkete.

Handik bi minutura atariko txirrina aditu da. Josebak bat ere itaundu barik ireki egin du. Bertze bi minuturen buruan ateko txirrina entzun da. Josebak atea zabaldu du.

–Eskerrik asko. Zenbat da?

–Bortzehun eta berrogeita hamar.

Ordaindu ondoren atea hertsi eta adiskideengana hurbildu da.

–Barkatu baina Mateok jan aitzin bideozinta bat ikusarazi nahi zigun. Ikus dezagun hau haren azken hitzak baitira.

Elkarri begira geratu dira. Beldur dira. Zinta hartan ager daitekeenaren beldur. Hondarrean ikustea erabaki dute. Josebak zinta bideoan sartu eta telebista piztu egin du. Pantailan hitz batzuk agertu dira

MATEOREN AZKEN FILMAZIOA.

Laurak telebistari begira daude. Izenburua desagertu denean Mateoren aurpegia ikusten hasi da. Denak hunkituta daude.

Bihotzaren taupadak entzun ere daitezke. Denek mukizapiari eusten diete. Malkoak darizkie. Zeharo hunkiturik daude. Joatear daude baina Josebak gerarazi ditu. Azkenean, zintan, Mateo hizketan hasi da:

–Eguerdi on, adiskide maiteok. Lasai egon zaitezkete ez baitizuet erakutsiko neure azken arnasa. Espero dut eginiko opariak zuen gustokoak izan daitezen. Nituen sos guztiak xahutu ditut erosteko. Barka ezazue bakoitzari egindako txostentxoetan neure burua zuritzeko erakutsi dudan joera. Nik uste neure sentipenak zuekiko argi eta garbi azaldu dizkizuedala. Batez ere hiri, Mari. Neure laztan ederra. Barkatu horrela erran izana. Baina utz ditzagun gauzok eta entzun ezazue ongi erran behar dizuedana.

Mateok, bere sakeletik, txartel baten fotokopia atera du. Bonoloto txartela da. Kamararen aitzinean paratu du eta gero kendu du berriz berba egiten hasteko.

–Hemen ikusten duzuen boleto honek badu bere saria. Berrehun eta hogeita sei milioi pezeta. Orain dela lau asteko txartel sariduna da. Eni egokitu zitzaidan. Neuk egin nuen txartel hau. Beraz, sariduna neroni nauzue. Bi, bi, sei, berrehun eta hogeita sei milioi pezeta nire kontu korrentean. Ez dakit aurrerantzean lanik eginen dudan baina ziur dakit oraingoz ez dudala bat ere asmorik. Jakina HIES-ak jota nagoenez ez dut diru hau hustiratuko. Baa..., EZ!!!!, ez nago HIES-ak kutsatuta. Egia da Pello Urritza HIES-ak jota hil zela baina ezinezkoa da erizain batek ez botatzea xiringa froga bat egin eta gero. Mesedez, profesionalak dira!! Ziur aski maho utziko zenuten haren zuhaitz genealogikoa. Orduan zertara heldu ote da hau guztiau? Oso erreza. Trufa. Trufa gogorra baina trufa azken finean. Zuek ene lagunik minenak zarete. Ramon Baleztena falta da baina kanpoan da. Ezkon bidaian Kanarias aldera joan omen da. Beraz hemen dago betiko lagun taldea. Sekula ez naiz gauza izan gauzak aurpegira errateko. Honela, aldiz, aukera paregabea eduki dut zuei sentimentuak adierazteko. Ez dizuet aurpegia ikusten baina suposatzen dut zur eta lur geratu zaretela. Ba, egon, egon, oraindik gehiago dago eta. Lehenik eta behin hilkutxari darion kiratsa Felixa anderearen katuak botatzen du. Herenegun hil zen. Nik Felixa andereari hitz eman nion lurpera-

tuko niola bere «LOTI» maitea. Katuaren gorpua hartu eta hilkutxara sartu nuen. Ziur nengoen ez zenutela barnera begiratuko beraz ez zegoen arazorik tranpa hau asmatzeko. Gainera Joseba denbora honetan guztian jakinaren gainean egon da.

Denek begirada zorrota egin diote Joseba maltzurtxoari. Bideozintan Mateok bere solasarekin segitu du:

Entzun itzazue argi eta garbi ene azalpenok. Lehendabizi eta behin komeria hau bukatu bezain laister har ezazue «LOTI» eta lurpera ezazue, ez nuke Felixa uste okerraren jabe egonen zenik nahi. Bigarrenik hilkutxaren azpiko aldean txartel batzuk daude. Bi poltsatan. Lehendabizikoan, berdean, haundian, Iruñetik Bartzelonaraino joateko hegazkin txartelak daude. Hegalaldia arratsaldeko hiruretan abiatuko da Bartzelonari buruz. Beraz arin ibili ez baduzue galdu nahi. Hirugarrenik, bertze poltsan, txikian, gorri hartan Bartzelonatik Firenzerainoko txartelak daude. Hegalaldia arratsaldeko zazpietan abiatuko da. Beraz Bartzelonara iritsi eta baduzue hiru ordu eskas bertze hegalaldia hartzeko. Laugarrenik eta azkenik, ni bizirik nago eta Firenzen nago atzoz geroztik. Zuen hegalaldia Firenzera gaueko hamaiketan iritsiko da. Utz itzazue gauzak DAVID izeneko ostatuan (erreserbak Txabiren izenean eginik daude, ez kezkatu) eta joan zaitezte Firenzeko Duomoren aurre-aurrean dagoen kafetegira. Ni han aurkituko nauzue. Zuen zain. Beharrezkoa bada loteriaren dirua gastatzea ene lagunekin den-dena gastatuko dut. Etorri Firenzera ongi pasatzera. Zuen zain naukazue.

Grabazioa bukatu da. Ustekabe ederra izan dute denek. Mateo bizirik dago. Jonek hilkutxa ireki du eta barnetik ateratzen den kiratsak ez du ezertako gogorik uzten. Katua hartu du poltsa batean sartu eta hilkutxa hertsi egin du. Lurperatu behar dute etxeko lorategian. Bizkitartean elkarrekin solasean hasi dira.

–Hura ustekabea. Hona bilarazi, negarrarazi, bere txostenak entzunarazi, gero errateko bizirik dagoela eta Firenzen dela gure zain loteria tokatu zaiolako.

–Ni beti bromak egiteko prest nago baina hau da inoiz ikusi dudan onena. Ez dut dudarik. Mateo ikaragarria da.

–Ni pozik nago bizirik dagoelako. Orain ikusiko du horrek zer den maitale on bat izatea. Ene laztana, hiregana goazak.

Lau lagunek katua etxeko lorategian lurperatu ondoren aeroportura abiatu dira beren poltsekin Bartzelonara joateko aurrena eta gero Firenzeraino, sekula ezagutu duten adar jolerik haundiarenarekin biltzera. Ikaragarria da zeinen aise pasa daitekeen negarretik alaitasunera. Gero egun onak iraganen dituzte Firenzen baina hori bertze istorio bat da.